

FRANTZIAKO IRAULTZA: MODERNITATE ETA TRADIZIONALISMOAREN ARTEAN.

Ignacio Aldekoa

Frantziako Iraultzak, Aro Garaikidea, hots, modernitatea, zabaltzen duen gertakizunak ilustrazioan du oinarria, tradizioarekin haustura nabarmena suposatzen duelarik. Guzti honen ondorioz, XIX. mendea hiru ardatz berriren inguruan antolatuko da: burgeseria, erromantizismoa eta nazionalismoa. Espainiako kasuan, burgeseriaren ahuleziak bilakabide hau oztopatu zuen.

Euskal Herrian berdin gertatzeaz gain, Modernitateak jaso zuen erasorik nabarmenena eta konstzientena euskal abertzaletasunarena izan zen. Sabino Aranaren nazio kontzeptuak, nazioa beti izan da eta bere horretan irauten du, modernitatearen funtsa, mugimendua aldaketa ukatzen du, Peru Abarkaren hildotik jarraituz. Hain zuzen, XIX. mendean hedatzen joango den euskal mundu zaharraren kontzientziak, euskal sena baserria eta tradizioaren inguruan txertatuz, gizarte aldakor, moderno baten zirkuluetatik urrun mantenduz.

Frantziako Iraultzarekin Aro Garaidide edo Kontenporaneoari hasiera ematen zaio. Modu zabal batean erabiliz Modernitate hitza ere erabil genezake. Errenazimendutik abiatuz –Erdi-Aro amaierako burges aitzindarien emaitzak jasoaz– Ancien Regime eta Absolutismoaren mende luzeak igaroz, burgeseria izango da Iraultzaren ondorioz hedatuko den gizarte aldatuaren protagonista. Burgeseriaren indartze eta nagusigo hau modu desberdinetan gauzatuko da Europako nazioetan. Ingalaterrari bagagozkio, XVII. mendean konpondu zen aristokrazia eta leku bila bultzaka zetorren burgeseria merkantilistaren arteko auzia. Frantziari bagagozkio, egiazko iraultza baten beharra izan zuen (egiazko iraultza batean ordurarteko gizarte-egitura guztiek jasango dute biolentziaren eragina). Bai Alemanian eta bai Italian Napoleonen erasoekin batera izango dira astinduak iraganaren lokarriak.

Modu batera ala bestera odolean (heredentzia) oinarritzen den tradizio aristokratikoa gainbehera dator; Elizari eta Erregeari zor zitzaizen fedea eta fideltasuna halaber. XVIII. mendean eragin handia izango du Ilustrazioaz ezagutua izan den filosofo-andanak. Berauen bitartez egin zen "Ancien Regime" delako gizarte hertsiauren aurkako kritika. Kritika hitza erabiltzen dudanean Deskarte batengandik hasi eta XVIII. mende horretarako ezinbesteko bilakatu den arrazoiaren bidetxidorez luzea nabarmendu nahiko nuke. Iraultzaren egintza bera eta honek

ahalbidetu zuen gizarte modernoak –gizarte zabala– bere-bereak bait ditu arrazoiaren tradizio hereditarioa, Elizari eta erregeari zor zitzaizen fede eta fideltasuna gizonarengandik eta bere giza-izakeraren afirmazio bezala hartuko den beste kontzeptu bat sortzen da: justizia. Benetako filosofia kritiko baten emaitza dugu azken hau. Gizarte zahar horren bilakaeran hiru mugarri jarri ahal banitza, honako hiruok jarriko nituzke: Mendebaldeko tradizio aristoteliko-tomistari Erreformak bihotz-bihotzean ezarri zion zauria; Erreforma honekin emango da Europako iparraldean lehen urrats nagusia sekularizazio bidean. Bigarren momentu bat aipatu behariko banu, filosofia arrazionalista eta enpiristarekin bateratsu, zientzia eta aurrerapen teknikoek ezarritakoa aipatu behar. Egia esan, honetantxe oinarrituko da burgeseriaren garaiko garapena. Eta hirugarrenez XVIII. mendea "Argien mendea" izen arranditsu eta optimistaz bataiatu zutenen Ilustrazioa. Bertan seinalatzen dira iraultzaren ondoren proiektatuko den sufragioa eta indibiduoaren burujabetasunean eraikitako gizarte berria. Horrelako gizarte baten funtzionamenduan eta helburuan justizia legoke. Hiru momentu nagusi hauek bateratuko bagenitu, Mendebaldeko gizonaren mentalitateak jasan behar izan duen bilakaeraz konturatuko ginatke. Momentu hauetako bakoitzean ikusi nahi izan dugun iraultza txikien bateratzearekin, Iraultzak maiuskulaz zentzu bat hartzen du. Hala ere, Iraultzak egiazko iharrausia izan

behar izan zuen; ordurarte sekula gertatu gabekoaren –oroimenak gorde zezakeenik, bederen– indarra eta zirrara izan zuen Mendebaldeko gizarte zaharraren mentalitaterako. Ezagutu eta bizi izan zuten munduaren izatea eta zentzua hankaz gora jartzen bait zuen. Hemen sortuko dira utopia eta erromantizismoa. Bi korrante nagusi hauek nahastuta datozkigu. Alegia, utopiak karga erromantiko handia izango du; eta erromantizismoari ere ez zaio faltako utopiaren aztarnarik. Modu zabal batean hitzeginez, utopia arrazoiaren ildoan ezarri dugu; eta garai luze honetan arrazoiaren ibilbidean emandako aurrerapausoak, arrazoiaren ideia bera aldatu egiten du. Arrazoiarena ideia izatetik sinismen izatera –fede zaharkituari ohostu zaion sinismena– iritsi da. Grezia eta Erromako filosofia (Platon eta Aristotele eta Erromako Errepublikaraiko idazleak) kristautasunarekin besarkatuta Erdi Aroko mende luzeetan iraun bazuen ere, Modernitatearekin batak (arrazoiak) bestea (fedea) irentsi egiten du. Arrazoiaren ideia, ideia mamitua, gorpuztua izango da; Iraultzak gorpuztu duen arrazoiak, alegia, egia bihurtua izango da (tronuratua). Honekin batera arrazoiak historiaren gidari ezezik, historiaren beraren norabide ere bilakatuko da; eta historia honen norabidea, aurrerantzean, progresora lerratuko da. Hona hemen gizon moderno eta razionalaren ikuspegi lineala: utopia, historia eta progresoa.

Filosofia utzi gabe pixkat gehixeago lurra ukituko bagenu, hiru ardatz nagusien inguruan zentratuko nuke XIX. mendearen panorama: burgeseria, erromantizismoa eta nazionalismoa. Batzutan elementuok entendimendu-gune batera konfluituko lukete; hau gertatzen denean, ezagutzen ditugun Mendebaldeko nazio liberalak sortuko dira. Beste batzutan zaila izango da bateratze-gune hori iristea eta, hau horrela gertatzen denean, ez da naziorik gauzatuko. Nazioarena da Frantziako Iraultzak gizarte berriarentzat dakarren funtsezko errealitate bat. Nazioaren ideari atxikita datorkigu, bada, Estatu modernoak.

Labur-labur esateko –nahiz eta badakidan beste hizlariak nik baino sakonago ukituko zituztela puntu hauek– betiere burgeseriari gagozkiola, zeintzu izan diren Antzinako Erregimenarekiko eten nabarmenak adierazi nahiko nuke; Burgeseriaren indartzearekin, ahituz, edo aldatuz bederen, joango da lurrari estu-estuan lotuta zegoen produkzio-mota. Antzinako erregimenaren sostengua feudalismoaren produkzio-moduan bazegoen, honen antolamendua desegitea derrigorrezkoa zitzaion burgeseriari, librekanbismoan oinarritzekotan bere zabalkuntza. Halaber, hiriak indartuko dira, modernitatearen foku berriak izango direnak, eta ahituko landako bizimodua. Laburtuz zera somatzen dugu, nola datorren aldatuz gizarte errurala burgeseriaren izenean.

Eta Espainiari bagagozkio zer?

Goian erabilitako eskema berriz aplikatuz, zera ikusten dugu:

a) Espainian sekularizazioa ez dela oso berandu arte iritsi. Hemen Erreformaren ordezkontrarreforma itogarri bat izan genuen. Errenazimendu-mugimenduak, Italiako mugak gaindituz, mundu modernoan inauguratzen zueneko garaian Espainia bere baitan barnebiltzen da kontrarreforma itogarri baten mendean. Hemen ez dugu filosofia kritikorik izan; ezta ilustraziorik ere zentzu fuertean. Ez dugu Frantziak izan zuen Iraultzarik-mentalitate zaharkituak astindu zituena- izan, baina bai kontrairaultza. Hemengoa beti aurka joan da; Europako korrante nagusienaren aurka. Ez dugu ahaztu behar Modernitatea, pentsamendu mailan bederen, kritika dela, edo ez da ezer. Baina zeren kritika? bada, goian aipatutako mundu zaharrak nagusitzat zeuzkan pribilegio eta hauen babeserako ziren gainontzeko instantzienena. Modernitatea egiten ari den gizarte dinamiko eta urdurian, gizonaren beraren bilakaera da nagusi, gizona bera egin bait da historiaren protagonista eta historiaren egile. Honetarako ezinbestekoa zaio modernitateari ikuspegi biblikoarekin etetea, ikuspegi inobilista eta eternalekin haustea -behin betiko emanak izan diren mandatuen aurka- gizonak, bizi duen mundu honetan, autoafirmazioa eta autoestima eskura dezan.

T. Galvan-ek zioen bezala, gure benetako sekularizazioa, edo falta da, edo oso beranta izan da; eta honek markatu du Espainiaren izatea.

b) Halabaina, gizartearen sekularizazio ezak badu loturarik bizimodu erruralarekin: Espainian burgeseriaren protagonismoa oso txikia da. Tuñon de Larak dakarren datuen arabera 1865ean portzentaia urbanoa %18 da eta errurala %82. Datu hauetxek adierazten digute zein indar ahula izan zezaketen Espainia batean Frantziako Iraultzaren mundu-ikuspegiak, filosofiak. Eta hau zergatik? Bada, ideia-korpus horrek ezingo duelako aurkitu gizarte mailan ideio bereganatuko zituzkeen klase sozialik; alegia, ez zuelako non pausatu eta mamitu. Espainiako burgeseriak ezingo du erakarri bere baitara klase ertain sozial zabal bat, ezingo dio klase zabal honi bere proiektu eta mundu-ikuspegia txertatu proiektu nazional liberal bat aurrera eramanez. Burgeseria monopolista, aldiz, Espainiako terratenienteekin ezkonduko da, interes ekonomikoan ezezik status sozial zaharkitu batek gordetzen zuen prestigio eta liluran ere. XIX. mendeko azken herenetik aurrerantzean banatu izan diren titulu nobiliarioak lekuko. Ez zuen proiektu nazional liberal bat bidera zezakeen burgeseriak nortasunik izango eta "status quo"ra makurtuko da; askotan burgeseria nobiliario honekin konfluituz. Mende-bukaeran industrializazioak emango duen urrats ikaragarrian burgeseria ez-monopolista erregionalismoaren alde azalduko da: erregionalista eta autonomista.

Lekutxo bat egin nahi nioke hemen, dagoeneko XX. mendean, Bilbo industrialdu eta burgesak kulturarako erakutsi zuen gutizia eta pruritoen emaitzari. Goraka datorren burgeseriaren baitan –bera baita emaitza honen kontsumitzailea– sortzen dira Ignazio Zuloaga, Aureliano Arteta eta Zubiaurre anaien pinturak. Bilboko Abesbatzak, hiriko burgesek babestuta zegoena, bultzatuta konposatu eta estrenatuko dira 1910ean Guridiren *Mirentxu* (Azkuek eta A. Donostiak bildutako materialei esker) eta J. M. Usandizagaren *Mendi-mendiyan*.

I Gerra Handiaren aurrean izandako neutralitatea, aberastasun iturri bihurtuko zen Bilborako. Oparotasun honen erdian sortu zen garai hartan Espainiatik ere dotoreenetakoa zen aldizkari bat: *Hermes* (1917-1922). Aldizkari honek bere inguruan nazionalista asko batu zituen, tartean aldizkariaren zuzendaria bera. Aurrerago ikusiko dugu nola garai hartako nazionalismoan, "Comunion" izenarekin ezagutzen zena, bi joera nabariak ageri diren. Labur esateko, bata autonomista edo erregionalista eta bestea, Sabinoren ortodoxiari estu-estuan makurtzen zitzaiona. Baten eskutik –Ramón de la Sotagaraiko nazionalismoaren sostengu ekonomikoa dator; bestearen eskutik, berriz, populismoa (botuak). Ramón de la Sota izango da mogimendu kultural honen barnean pieza klabe bat. *Hermes* aldizkariaren planteamendu ideologikoa

eta estetikoa, hala ere, oso irekia eta zabala izango da. Esate baterako, lehendabiziko zenbakian parte hartzen dutenen artean hauexek datoz: R.M. de Azkue, Manuel Aznar, G. Balparda, Pío Baroja, Ramón de Basterra, Juan de Encina, José Luis de Lequerica, Ramiro de Maeztu, Pedro Murlans Michelena, Jose M. Salaverria, Fernando de la Cuadra Salcedo, Rafael Sanchez Mazas, Ramón de la Sota, Miguel de Unamuno, Joaquín Zuazagoitia. 3. zenbakian Arturo Campion eta Ortega y Gasset azaltzen dira, eta beste batean, Alfonso Reyes.

Nahiko adierazgarria, garai hartako Espainiako letretan puntan zeuden pertsonalitateak bere inguruan batu zituela ikusteko. Ideologikoki ere irekia da, zeren eta bertan azaltzen diren asko falangearen eta diktaduraren plataforma ideologikoak erabili zituen. Baina hau beste problema bat dugu, kapitalismoak –nortasun gabeko burgeseria boteretsu bat– hartu zuen bidean etab.

Joaquín Adanek halaxe definitu zuen *Hermes*:

Nada de vasquismo ruralizante y literario, al estilo que, como se recordará era consustancial al primer nacionalismo, sino, en todo caso, una mezcla de espíritu regional, apertura europea y exaltación de la voluntad que cotidianamente hacía el milagro del progreso ciudadano.

Kataluinian D'ors baten "non-centismo"ak aldarrikatuko duen programatik gertu: erregionalismoa, burgeseria eta abangoardia. Halere, laster egin zuen porrot proiektuak eta 1920tik aurrerantzean burgeseria boteretsuak bizi dituen kontraesanek beste estudio bat mereziko lukete.

Disgresio luze honen ondoren, eta gezurra badirudi ere, berriro gaia zentratu beharrean aurkitzen naiz. Eta horregatik, lehen-lehenik hitzaldi honen zergatia justifikatu nahiko nuke. Horretarako hitzaldiaren izenburua bera azaltzen saiatuko naiz. Nire abiapuntua, Euskal Herriaz aritzerakoan, hauxe litzateke: mundu modernoak –XIX. eta XX. mende-etako gizartea– euskal munduan izan duen eragina eta zeintzu izan diren beraren ondorioak. Eta lehen hipotesi bezala modernitateak izan duen erantzunik nabarmenena eta kontzienteena nazionalismoa izan dela jaurti genezake. Badakit hau horrela adierazita ez dela zuzena, baina luzatuko gara aurreraxeago. Nazionalismoa, edonork dakien modura, industrializazioaren seme da: industrializazio urduri batek, garaiko gizarte tradizionalak ezin dijeritu zuen dinamika ezarri ondoren, azken honen gizalokarriak dilindan utziko ditu. Lehen erantzuna, eta erreakzioa, kontrakoa izango da; eta bigarrena, "Euskalherriakoak" itsatsi ondoren permisiboagoa. Bigarren joera honen adierazgarri izango da Engracio de Aranzadi ("Kizkitza"), Sabinoren garaian maisuaren ortodoxiaren jarratzaileak zioena:

Para nosotros, los nacionalistas vascos, la riqueza nacional está vinculada a la sustancia misma de la nacionalidad. Sabemos que sin riqueza pública no hay nacionalidad que resurja ni tienen eficacia los derechos de la ciudadanía (...). La riqueza es el fundamento de la nacionalidad. El nacionalismo considera a sus detentadores, sean cuales fueran sus ideas políticas, como elemento intangible de la nacionalidad.

Ikuspegi hau dela eta aztertu beharko genuke PNVren barnean izan diren bi joera nagusien garapena. Batetik orainarte aipatu duguna, Sabinoren lehen planteamendua alegia, 1936 arte maisuarenganako errespetu eta miresmena gorde eta alderdiarentzat, aitzindariaren bidea seinalatzen duena. Bestetik Euskalherriakoek alderdiari txertatu nahi izan dioten joera liberalagoa; duerismo kontserbadoretik urrunduz garaiko burgeseriaren goraldaketari egokituko zaiona. Ez da alferrik izango Ramón de la Sotaren ontzigile ospetsua alderdi honen burua. Ramón de la Sotaren ekipoa izan zen euskal nazionalismoaren barnean, burgeseria boteretsu baten inguruan zimentatuz, euskal proiektu nazional bat aurrera eramanez zakeen proiektu erreala bakarra. Halere, ikusiko dugun bezala, bi joeren artean errezelu handiegiak izango dira. Azken finean nazionalismoaren barnean kokatu den burgeseria indartsu hau autonomista eta erregionalista –Kataluinian bezalatsu– izango bait da. Sabinoren ortodoxiak, aldiz,

independentziaren bidea seinatzen du. Halere, azken honen proiektuak, azken industrializazioak gainbehera ekarri zituelarik gizarte aurrekapitalistaren gizalokarriak eta presupostuak, ez du egiazko proiekturik Euskalerrikoekin elkartu ezean (batzuk 1976ko ezabaketaren aurreko garaira itzuli nahi dute; bigarrenek, ordea, 1839an dute jarria helburua). Sabinoz geroztik, maixuaren ortodoxiari jarraitzen zaion heinean bederen, erruralismoan eta are baserriarrengan aurkituko du gorputza modernitateak ezarri dituen giza burubide berrien ukazioak. Kasu honetan nazionalismo ortodoxoa izango da, 1936rarte, industrializazioak eta bere ondorenak itxuratu duen Euskal Herri transformatuaren aurrean antidoto eragileena. Modernitate horrekin batera lerratu bait zaizkigu arrotzak zaizkigun filosofia eta antiklerismoa, laizismoa eta, gure arrazaren eredu eta adiera garbiena den baserritarra eta beronen munduaren kalterako beste hainbat ideia gaizto.

Norbaitek esango du guzti hau XIX. mende-amaieratik XX. mendeko lehen herenera gertatua izan zenez, ea zerikusi gerturik izan dezakeen Frantziako Iraultzarekin. Europako beste nazioetan bezalatsu, industrializazioa burgeseriaren nagusigoarekin datorren produkzio-mota da. Frantziako Iraultzak ahalbidetu zuen gizarte-harreman batzuren emaitza. Ikusi dugu, oso laburtuta izan bada ere, zein izan den Espainian burgeseriaren iraultzari ezarri zaizkion oztipoak: Espainiako instituzio eta

politika, ekonomia etab. oso tradizionalistak dira. Euskal Herrian beste horrenbeste gertatuko da. Gorago esan dudan bezala, nazionalismoa, industrializazio larriak ekarritako inmigrazio gogorrari emandako erantzunaren testuinguruan ikusi beharko genuke. Prezedenteak? Jakineko dira XVIII. mende amaieran Napoleonen ejerzitoak Europan zehar paseatu zireneko ondorioak; kasu Alemania, gizarte zaharraren lokarriak desegin ziren eta Frantziaren eraginpean, itxuraldatzera joko dute bertako ohitura eta tradizioek. Euskal Herrian ere sartu ziren "Convención" delakoaren ejerzitoak eta honen kezka soma daiteke Mogelen Peru Abarkan. Bada, egia esan, mende-amaierako inmigrazio larriak inbasio baten bidenabar esango dut, hauxe dela Sabinok idatzi zuen artikulua esanguratsuenetako batean dakarren hitza— itxura har zezakeela. Sabinoren idatziak ikusiz gero nabaritzen da horrek, nolako iharrausi sakona izan zuen —nahiz eta oraindik zeharo kontzienteki ez bizi— abertzale-kontzientzia ernaltzen ari zitzaion zenbaitengan. Sabino Aranaren ideologiaren aztarnak eta nondik norakoak, iturriak e.a. aztertzeraz ez dugu joko, hitzaldi honen asmoak eta zedarrak txiki utziko lituzkeelako. Halere, beraren ideologiaren ezau-garritan aipagarriena nabarmendu nahiko nuke —aipagarriena esaten dudancan, eskutan darabildan gaiari lotzen den heinean bakarrik, esan nahi dut—, nazio baten zimentarrirako eratu duen sentimendu eta ideien korpua azaltzen duen neurrian.

XIX. mendean asko ugaritu ziren ikerketa historikoak, zerbaitengatik da historizismoaren mendea. Ulergarria bestaldetik, XVIII. mende-amaieratik XIX. mendearen barrena gizarte mailan emango diren transformazioak ikusita. Antzinako mezulari eta liburu santuetako interpretarien ondoan historiaren barnean gertatzen ari diren transformazio etengabeen sekretua antzeman nahi duten zientzilari eta soziologoan andana igaroko da. Hau, zientzia positibistaren aldetik, bigarren joera historiko-erromantikoa izango da.

1892an argitara emango zuen S.Arana Goirik bere *Bizkaya por su Independencia* liburua. Hau ere historiaren azterketaren emaitza da. Halabaina, zein da liburu honen mamia, Bizkaiko historiaren lau momentu gogoangarri hauetan? Labur-labur adierazita, esan genezake Sabinoren asmoa ez zela, Bizkaiak historian zehar izan duen askatasun-gogoa erakustea baino. Halako historia-lan gehientsuenetan bezalatsu, Sabino ere ez zen konturatu IX. mendean hitzegiten ari zenean XIX. mendeko presupostuetatik hitzegiten ari zenaz. XIX. mendetik eraiki nahiko ditu garai hartako gertaerak, baina gertaera hauen protagonistei, Sabinoren garaiko kontzientzia itsatsiz. Bizkaiko historiaren momentu goren horietan nabaria da XIX. mendeko literatura historiko-legendarioaren aztarna eta eragina. Lan honetan –eta barka bekik horrenbeste buelta eman izana liburu honi, baina uste dut, bertan

agertzen duen izpiritua dela, beraren ideologia aztertu dutenek "lehen garaitzat" jotzen duten hau, aurretzean iraunkorrena nazionalismo ortodoxoarentzat– Bizkaia idealizatu bat aurkitu dugu. Alegia, nazionalismoaren ideiak modurik puruenean adierazita. Historiaren gainean duen jarrera bera erakutsiko du hizkuntzaz ari denean. Halabaina, badu jarrera honek arrazoi bat eta hauxe izango da: nazioa beti izan da eta bere horretan irauten du; bestela esanda, aldaezina da. Horregatik, egungo egoeran erori bagara, euskaldunon degradazio eta laxokeria medio izan da. Beraz, Euskaldunok gara errudun bakarrak. Eta hemen, uste dut sartu behar dela, Sabinoren nazionalismo eta arrazaren kontzeptua batera datoz. Arraza jartzen bait du Sabinok nazionalismoaren oinarri. Eta arraza hau naziotasuna izango da –nazio bat posible egiten duten berezitasun guztien konfluentzia– eta bere izatearen mamidura. Egia esan, kontzeptio erromantiko hau aztertzeak luzera joko liguke eta bertan behera utziko dut; baina ez azpimarratu gabe, ikuspegi honek ukatu egiten duela Modernitatearen funtsa eta historiaren amasa dena: mugimendua, aldaketa, transformazioa. Sabinoren historiari buruzko ikuspegia, ikuspegi immobilista da, behin betiko emana izan dena; onartuko balitzait atrebimendua, biblikoa dela esango nuke. Horregatik bakarrik ager daiteke naziotasuna (arrazua euskaldungoa, nahi den izena eman) beti berdina eta beti bera. Alegia,

Jainko bat eta izate bat: Lege-zaharra. Ikuspegi liberalak, indibiduoa protagonista bilakatzen du; tradizionalismoak, ordea, ez. Indibiduoa gainetik daude arraza edo "volgeist": herri baten izpiritua. Batean historia egin egiten da, bestean emanda dator; batean da bilakaera, bestean esentzia.

Hizkuntzarekin beste hainbeste egingo du Sabinok; Astarloa apologista zaharraren iturrietan edan ondoren, laster da ohartarazia, hizkuntza modu bibliko batez emandako "grazia" bat dela, eta egungo akatsak eta erderakadak, ez direla behin betiko irauteko eman izan zen hizkuntza perfektu eta idealaren degradazioa baino. Berriro aldaketaren eta historiaren ukazioa. Bi kasuotan proposatuko diren soluziobideak zeintzu dira? Purismoa hizkuntzan eta arrazaren gotortzea. Uste dut askotxo esatea litzatekeen arren, gauza hauetan azterketa-falta handia dagoenean, ez litzatekeela gehiegikeria Astarloa eta Mogelen hizkuntzaren dimentsioa eta Aranaren arrazarena, enbor bateko bi adar bezala ikustea. *Peru Abarka* idatzi zenetik Aranaren planteamenduetara ehun urte igaro badira ere, biek aukeratutako soluzio-bideetan soluzio bat eta bera dago: baserritarra. Esan gabe doa, baserritar hau, kasu batean nahiz bestean, idelizatuta datorrela. Batean, hizkuntza egoloa eta aberatsa erabiltzen duen Peru izango da perfekzio guztien esenplu. Honen hizkuntza ezin izan zitekeen hain jaso eta joria baserritarra izan ez balitz. Maisu Juanen hizkuntza, ordea, traketsa eta

desegokia da (hizkuntza mordoiloa) –adulterinoa–, Maisu Juan kaletarra bait da, eta kalea distortsio askoren gurutzaketa da. Beraz, M. Juan inperfekzioz jantzitako kalekumea dugu.

Bi karlistaden artean hedatuz joango da euskal mundu zaharraren erorketaren kontzientzia. Honen aurrean gaztekeraz idatzia izan zen literaturak historiaren antza eduki nahi zuen, eta literatura honek mundu zahar horren apologia egingo du. Horretarako, XVI. mendetik hasiz, "Materia de Euskalerrria" delakoak apologisten eskuetan izan zuen erabilera, beren fantasia eta alegoriak sortzeko, ugarria izan da. Goizueta eta Araquistain, Trueba eta Villoslada lekuko.

Euskaraz idatzi zutenen arteko joera ere berbera izango dugu. Euskera gainbehera datorren munduaren lokarri eta kohesio-gunea ezezik, geroarena ere izan nahiko luke. Iztuetak 1847an idatzi zuen *Guipuzcoaco Provinciaren condaira eta historia* delakoan adierazten duen bezala:

Euskara ill ezquero Fueroac ez dira bicico; bañan Euskara bici bada, Fueroac pictuco dira.

Iztuetak prosaz egin zuen antzerako zerbait egingo du Iparraldean Hiribarrenek *Euskaldunac* (1853) bertsoz idatzitako liburuan.

Geroxeago Iparragirrek kantatu zuen fuerismoaren himnoa izatera

zatorren Gernikako Arbola. Bertan bilbatzen ditu Fuerismoaren ezaugarri guztiak –Jaungoikoa eta Foruak, Euskal Herria eta Euskera– arbola sailduak bere itzalpean babesten duelarik Euskal Herri osoa, kontraesan- eta transformazio-kutsu duen edozerretatik urrun.

Geroxeago argitaratutako beste batean hala dio:

*Pakean bicitzeco
gure mendietan
euskera itzeguin bear da
batzarre denetan.*

Mogelekin ezagutzen genuen zenbait erlazio, berriz agertzen dira: euskera, mendia, pakea.

Euskara eta foruak goralduz transformazio-itxura guztien kontra nabarmena da mezu antiliberala E.M. Azkueren hitzetan:

*Nun dira orduko guizon
geure patriarcak,
jasten zituezanak
oñetan abarcak? (...)
Vizcajan eguin dira
bide-laun zabalak
libre sartu deitesan
ekandu zitalak:
orain gagoz eguiten
burdiña bidea
Fueruak igasteko
segurua atia.*

1896an R.M. Azkuck bere aitari argitaratutako *Parnasorako bidea* izenarekin datorren poesi liburan

ikuspegi bera aurkituko dugu. 1876az geroztik (foruen ezabaketa) ikuspegi hau areagotu eta erradikalizatu egingo da. 1852an Urruñan ospatu ziren lehendabiziko aldiz Lore-jokoak. D'Abaddie izan zen Lore-joko hauen sortzaile. Lore-jokoak ("Joie Florals") Bartzelonan ere ospatzen dira 1859az geroztik. Izango dute, bada, nondik ikasi 1870eko hamarkadako azken urte horietan –II karlistada eta Foruen ezabaketaren ondoren– euskararen gainbeherak hainbeste kezkatzen zituen Iruñeko "Euskara" erakundeko partaideek. Elkarre hain 1878an agertzen da eta beraren helburu larriena euskararen defentsa izango da. Erakunde honen abiapuntuan hizkuntzaren ikuspegi erromantikoa dago, alegia, hizkuntza da herriaren arima. "Euskara" erakundeko Campionentzat –Iturralde eta Landarekin sortzailea eta Sabino aurtxoko nazionalismorako bidean pieza klabca– nazio baten arima hizkuntza da. Campion, nazionalismoaren mugimendutik, kulturaren burutzat hartua izan zen. *Gramatica de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* eman zuen argitara 1884ean. Euskaltzaindiaren sorreran parte hartu zuen, Euskal Esnalea Erakundeko lehendakari eta Oñatin 1918an ospatu zen Euskal Estudio-tarako lehen kongresuan ohorezko lehendakari izan zen besteak beste. Jatorriz gazteleraz idatzitako hainbat lejenda euskeratu egin zituen: *Orreaga* titulaturia esate baterako.

Euskal munduari oso atxikiak, *El último tamborilero de Erraondo* eta *El bardo de Itzea* nabarmenduko

ditugu haren errelatoetan. Haren azken nobela *Blancos y Negros* izan zen. Titulua bera ere manikeista xamarra da –gutziz ez esatearren– tarteko kolorerik ez bait da onartzen. Txomin Agirrereren nobeletan bezalatsu, onak, benetan onak dira –ez dago hemen urardotzen den izakerarik– perfektuak, Peru Abarka genuen bezalakoa; gaiztoak berriz –normalean liberalak– gaitzaren jeinuak izango dira. Dena den, hor duzue Jon Juaristiren *El linaje de Aitor* liburua, literatura fueristaren azterketa sakona. Han aipatzen den bezala, A. Champion izan zen erromantizismo berantaren sokan azkeneko idazlea. Oraindik euren iturri oparoenetakotzat Walter Sacott eta parekoak hartzen zituztenek, mende positibistak eskatzen zuen historiografia zorrotzari ezin aurre egin eta, leicnda eta pseudohistorian jarriko dute beren helburua eta ahalegina. Agustin Chahoren fantasia erakargarriak bihotzera, eta ez arrazoiria, seinalatzen bazuen, harez gero mende-amaierarte idatzi zuen idazle-andanak ere, beste hainbeste egingo du.

1880an Manterolak *Euskal-Erria* aldizkaria sortu zuen, Iruñeko "Euskara" erakundearen aitzindari-zapean; "Euskara" erakundeko partaideen helburu eta asmo berak bultzatuta. *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan batuko da Gipuzkoako garaiko kultura fuerista. Manterola bera izango dugu *Cancionero Vasco* delako folklorea eta zenbait musika-egile kultoren bilduma eratu zuena (1877-1880).

Haren ondotik datorren beste folklorista handi baten aitzindari: R.M. de Azkue. Giro honetan indartzen da M. Soroarekin euskal antzerki modernoa ere, geroago T. Alzagarekin eta XX. mendean gauzatuko dena.

Lore-jokoetara itzuliz, 1870. urtea nabarmentzen zaigu, orduantxe ospatu bait ziren Elizondon, hegoaldean lehendabizikoak, aipatutako jaiak. Handik aurrerantzean leku askotan antolatu ziren. Lore-jokoetako ezaugarrietako batzu hauexek dira: literatur sariak ez dira izango ospatzen ziren beste zenbait ekintza folkloriko edo euskal usaina zeriena baino inportantagoak (alegia, pilota-partiduak, adibiderako); euskal poesiaren lehiaketek dagokienean esan, autore gutxi batzu direla lehiaketotan irabazle suertatzen direnak; gai jakin batzuren inguruan idatzi behar izaten zuten, orohar, foruen desagerketaren ondorioz euskal kontzientziak nabarmenkiro kezkatzen zuen "korpu" jakin batekoa. Lore-Joko hauen helburua euskalduntasuna eta, nagusiki, euskararekiko kontzientzia suspertzea izango da. Hona hemen zenbait izen: Arrese-Beitia, J.B. Elissanburu, Pepe Artola, Klaudio Otaegi, Arzak, etab. Lehenengo bien poesiatio batzu paratuko ditut hemen. Arrese-Beitia izan zen lehiaketa askoren irabazlea. Idazten duen poesiagatik eta Championen inguruko artean izandako harrera-gatik, Arrese-Beitia "Euskera" erakunde fueristaren presupuestuen poeta organikoa izan zela esan genetzake.

*Agur ilun bat egin deuskue
guraso zaren legiak
Umezurtz batzuk gelditu gara
Biloxik Foru gabiak;
Izan bagiña eurak legetxe
Euskeriaren zaliak,
oso ta garbi gordeko ziran
oitura ain miresgarriak.*

(Ama Euskarari azken agurrak).

Ama Euskararen ondoan arbolarena da –Gernikako Arbolak babestu izan du euskaldunen berezko askatasuna– sinbolorik oparoena:

*Arbola bat zen Bizkajan bere
neure anaya laztanak,
zeiñen azpian pozez beterik
egoten ziran asabak,
kerispe zabal artan jarririk
eguinta euren Batzarrak,
bustarri gabe nasai ta libre
bizi ziran bizkaitarrak.*

(Arbola bat)

Poeta honengan aurkituko dugu –dagoeneko Iparragirre batengandik urrun, Arreseren erradikalismoak nazionalismoaren bidea seinalatzen du– Espainiaren aurkako herria:

*Zorigaistuan negargarri-ta
dot sentimendu andia,
geure lur maite dakustalako
Gaztelatuta jarria".
"Erdue Gaztelan igarrak"
(gusano castellano)
etxean sartu zaigunetik:
"Isildu ziran neskachen kantak
mututu artzaiñ-chistuak,
zelaizabal ta jolas-lekuak:*

*arroaka beera ichasoruntza
doiazan errekaokoak
gau eta egun chilioz dagoz.
¡Ay gara Gaztelakoak!*

Autore honek eta garaikoeak aipatuko dute behin eta berriz literatura fueristan erabiliak izan ziren topiko asko eta asko.

Egiatzko azterketa serio bat mereziko luke, bestalde, euskal literaturan barrena baserriaz egin izan den erabilpena. Baserria izango da, aztertzen gatozen mende honetan hasi eta XX.aren erdirarte, euskalduntasunaren balore eta birtuteen gordeleku. Baserria izan da euskaldunak bere-berea duen izpirituaren ispilua: izakera (arima). Kontua da izate hau nola ikusia izan den eta nola erabilia. Beste hitz batzu ere erabil genitzake eta esan, nola idealizatua edo asmatua. Tradizionalismoaren sustraian dagoena da gorago aipatutako immobilismoa, alegia, historia eta tradizioa formula honetan parekatzekoa: historia = tradizioa. Edo historia: natura. Gizonaren eta munduaren ikuspegiak, historiaren eta nazioaren ikuspegiak baldintzatuko ditu posizionamendu honek. Horrelaxe asmatu eta idealizatzen dira tradizioak, normalean ahaztuz, idealizazio orok duen arriskua: errealitaterik eza. Normalean idealizazio honek ez du egiatzko baserria eta landa, beraien protagonisten bizitza eta egoerekin, modu autentiko batean kontatzen. Erroman-tizismoaren joera sentiberek –modu endemiko batean, korronte

nagusi bezala— luze irautea negatiboa da; kritika ito egiten dutelako. Horrexegatik ez du euskal literaturak izan Europako beste nazioetan hain eragin sanoa izan zuen errealismo-rik. Badakigu errealismoa kritikaren semea dela, positibismoaren seme errebelatua, honen gizarte-moldeak eragiten dion ondoretatik abiatuz, gizarte beraren bertsio osotuagoa eskaini nahi duena. Finean, errealismoa modernitatearen emaitza da, mentalitate berri batena. Euskal literaturan Julio de Urquijok 1907an sortutako *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoarekin, XX. mendeko lehen herenean Filologia arloan izandako zentzuzko kritika falta izan da. XIX. eta XX. mende aurreratuxearte behar genituzkeen halako batzu. Era berean funtsezkoak izango dira, filologiarekin jarraituz, Azkueren lanak, beronen morfologia eta, batez ere, hiztegia.

Berriro hariari helduz, konturatuko gara nola ez den gehiegi aldatu —aldatu bada ere— Peru Abarkatik datorren korronte hau. Hauxe da Arrexe-Beitiaren baserria:

*Oh, baserriko bizitza gozo
 zaukadazana echean!
 ¿Nok topau zaikez urez anditik
 Ameriketa aldean?
 ¿Non topau zaikez ainbeste
 kasta
 loi ta zikiñen artean?
 Iñork bere ez an, ezelan bere
 kontari onen ustean
 orren proba dakustalako
 garbiro neure echean.*

Edo-ta hain ezaguna dugun J.B. Elissanbururen beste hau:

*Ikusten duzu goizean
 argia hasten denean,
 mendito baten gainean
 etxe txipito aintzin xuri bat,
 lau haitz ondoren erdian,
 xakur xuri bat atean,
 iturriño bat aldean?
 Han bizi naiz ni bakean.*

Bat etorriko dira, ikuspegi honetatik bederen, R.M. de Azkue eta S. Arana. Azkueri dagokionean *Bizcay'tik Bizkaira* zartzueta nabarmendu eta, Aranari dagokionean, *Liebe* antzerki txiki bat, baita beraren poesia ere.

Joera hauxe dugu T. Agirreren nobelagintzan eta ondorengoan, Txillardegi, Saizarbitoria etab. iritsi ziren arte, baserri-mundua utzi eta literatura hiritartu egin zen arte.

Batetik, nobela historizistaren ildotik, *Auñamendiko Lorea* (1898) bezalako titulu bat dugu, Navarro Villosladaren *Amaya y los vascos en el siglo VIII* nobelari gertutik jarraitzen zaiona. W. Scotten lilura soma daiteke P. Lhanderen *Yolanda* (1921) nobelan ere. Finean XIX. mendeko eredu historizista hauek Etxaiderenganaino iritsiko dira. Bestalde XIX. mendeko ohiturazko nobelak erregistro idilikoan agertuko zaizkigu Txomin Agirreren *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912) bezalako nobeletan. Nobela hauen erdueraz hitzegiterakoan beti

aipatu izan da Pereda erregionalista, bere nobelen trama, hiri eta modernitate gaiztotik urrun, mendiko zokoa kokatuko dituen. Ez da gehiegi aldatuko Jose Etxeitaren kasuan, Trueba zaharraren itzultzaile eta bi nobelen egile: *Josetxo* (1909) eta *Jaioterri Maitea* (1910). Evaristo Bustintza (Kirikiño) ere ez dabilkigu zedarrari hauetatik ihesi bere *Abarrak* (1918) eta *Abarrak II* (1930) ohitura-*ipuin*ekin. Hausnartzen den giro eta gaiengatik Iparraldeko beste idazle bat ere sartzen dugu zerrenda honetan, Jean Barbier dugu idazlea eta *Supazter chokoan* liburua. Gehiago ere erants daitezke, halakoxea bait da idazle guztion artean dagoen adostasuna gai, giro eta ambientazioan, finean euskal munduaren kosmobisioan.

Poesiari bagagozkio, esan gabe doa, Lore-Jokoetatik datorren tradizioak bere hartan zirauela. Bai purismoaren eraginez eta Sabino Aranaren poetika tipia dei geniezaiokeen *Lecciones de Ortografía del Euskera bizcaino* delakoarckin bestelako joera –joera kultoagoa– ireki nahi da. Maiz aipatu izan da poetika itipi honen araudiaren onarpenean legokeela "Olerkariak" –Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Loramendi besteak beste– zeritzon mogimenduaren ezaugarri bateratzaile bat. Hala eta guztiz ere, Lizardik ezik, beste olerkariak noiz behinka baizik ez dute betetzen araudia. Hala ere adierazgarria eriden dugu metrikari buruzkoan nahiz poesiari berari dagozkion beste fenomeno teoriko batzuren inguruko kezka, ageri-agerian erakusten bait dizkigute, ordurarte

ez bezala, poesia landu eta kulto baten lorpenerako zabalduko urratsen ahaleginak. "Olerkariak" –Aitzolen gidaritzapean 1927an Arrasaten sorturiko "Euskaltzaleak" elkartearen inguruan batu zirenak ditugu– edo Gerraurreko belaunaldiaren emaitzak ditugu honako hauek : Lauaxetaren *Bide-Barrijak* (1931) eta *Arrats-Beran* (1935); Lizardiren *Bihotz-begietan* (1932) eta *Umezurtz Olerkiak* (1934) eta Orixeren *Barne-muinetan* (1934). Eta amaitzeko, ez dugu ahaztuko Orixeren *Euskaldunak* liburua, nahiz eta 1950ean argitaratua izan, 1935ean amaituta zegoena.

Bestalde, ez ditugu ahaztuko, beste alor batzuetan, hasi folkloretik eta etnografiaraino 1918tik aurrerantzean 1936 arte J.C. Gerra, M. Lekuona, Barandiaran eta abarrek egindako lanak. *Anuario Eusko-Folklore* (1931).

Ez nuke amaitu nahi bi puntu nagusi azpimarratu gabe:

1) Burgeseriak bere progresorako dinamikari, etengabeko aldaketei, aure egiteko zientzia positiboetan aurkituko du laguntza. Zientzia positiboek izango dute lehentasuna gizarte industrialdu honetan.

Erromantizismoa ere –aldaketa larrien aurrean emandako erantzuna– emankorra izango da kultur mailan, giza zientziek izango dutelarik lehentasuna. Hasi historiatic eta segi filologiarekin, era berean folklorea eta herri-poesia, etnografiak etab...

Erromantizismoarekin hedatuko da herri bakoitzak bere izateaz agertzen duen kontzientzia, nazio-nortasunaren afirmazioa.

2) Behin eta berriz –eta seguraski modu desordenatu batean– aipatu dudan arren, berriro seinalatu, euskal literaturak, ideologia tradizionalista baten eragin pean, jasan duen murrizketa espaziala eta materiala. Kontua, gizarte aldakor baten zirkuituetatik urrun mantentzean zetzan. Ideologia tradizionalista honen menpean, gure baserria eta goraldatzen zen baserri-mundua (edo herri txikietakoa) –ezer gutxi legoke literatura kultoan pautu honetatik kanpo– irrealia eta idealizatua izan da: aldatua edo asmatua. Bertsolariak izango dira egiazko baserria eta bertako bizimodua kantatuko duten bakarrak. Antonio Zabalak esaten zuen norbaitek baserriarraren bizitzaren laudorioak egiten dituenen, seguru

ez dela bera baserrikoa. Horregatik daude urrun Txirritaren *Nagusia eta maizterra* edo Bilintxen *Juana Bixenta Olabe* Arrese-Beitia edo Orixeren *Euskaldunak* bezalako girotik. Gabriel Arestik 1960an *Poesia eta Euskal Poesia* izenburuean *Eganen* argitara emandako lanean haxe zioen:

*Iñork eztu oraindik asmatu,
baina nik helburu
asmatu behar banuke ezagutzen
ditugu euskaltzaleentzako,
hau izan litzake: "Fedearekin
Pentsa".*

Bertsolariak izango dira Arestirentzat, "Fedearekin Pentsa" armiarma-sare ideologiko honen kutsaduratik aske egon izan diren bakarrak. Ez litzateke astakeria esatea, haiengan ikusten zuela Arestik literatura idatziaren tradizioari faltan egozten zion autentizitatea.